

PRENTSA-OHARRA

Artea eta sormena IV: hautematea, pentsatzea, sentitzea uda ikastaroa Guggenheim Bilbao Museoan

Bernadett Settele ikertzailea eta Elssie Ansareo artista izango dira topaketa honetan parte hartzen duten nazioarteko adituuen artean

Artea eta sormena IV: hautematea, pentsatzea, sentitzea du izenburu Guggenheim Bilbao Museoak eta UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateak aurten antolatu duten uda ikastaroak. Museoan **ekainaren 23an eta 24an** izango diren saioetan, artistek eta nazioartean Artearen Hezkuntzan adituak direnek Edertasunaren eta Plazer Estetikoaren inguruan hausnartuko dute. Hitzaldiak, solasaldiak eta eztabaideak Arte Ederretako eta Artearen Historiako ikasleei, eta arte hezkuntzako profesionalei zuzentzen zaizkie, baita gai horietan eta interesa duen orori ere.

Museoaren Entzungelan izango dira aurten ere UPV/EHUk antolatzen duen *Bilbao Arte eta Kultura 2010* uda ikastaroa osatzen duten jarduera hauek. Josu Rekalde, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko Dekanoa, eta Marta Arzak, Guggenheim Bilbao Museoaren Hezkuntza eta Interpretazioko Zuzendariordea, dira koordinatzaileak.

Ikastaroaren helburua honako hauek dira: Edertasunaren eta Plazer Estetikoaren ideia “ahaztuei” edo “baztertuei” buruz hausnartzea, iraganeko oroitzapen gisa etengabe azaleratzen baitira adierazpen artistiko bakoitzarekin; eta gai horiek erlazionatutako zenbait praktika artistiko eta sortzaile, eta egungo hezkuntza joerak aztertzea.

Ekainaren 23an, asteazkena, goizez **Roser Juanola** ikertzaileak *Estética y educación: una cartografía social y temporal de nuestros museos* (Estetika eta hezkuntza: gure museoen kartografia sozial eta denborazkoa) hitzaldia emango du. Bertan artearen, hezkuntzaren eta demokraziaren inguruko ikuspegia bitxia eskainikoa du eta erakundeek eta gizarteak elkarlanean aritzeko modu berriak azalduko ditu. Ondoren, **Bernadett Settele** ikerketa projektuen koordinatzailea jardungo da *Art Education in Transformation* (Artearen inguruko hezkuntza eraldatzen) hitzaldian. Horretan Zuricako Unibertsitateko Arte Goi Eskolan (arte-hezkuntzan aitzindari eta sektore horretako profesionalentzako erreferentea) garatzen ari den ikerketa projektuaren emaitzak azalduko ditu. Arratsaldez, beriz, *Belleza, Placer y Dolor: Análisis desde tres fragmentos filmicos* (Edertasuna, gozamena eta mina: hiru film zatitan oinarritutako analisia) izenburua duen eztabaidea izango da. Bertan parte-hartzaileak ondorengoekin arituko dira solasean: **Gabriel Villota** artista eta irakaslea, **Iñaki Martínez de Albéniz**, Soziologian doktorea eta ikertzailea, eta **Josu Rekalde**, artista eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko dekanoa.

Ekainaren 24an, osteguna, **Telmo Rodríguez** mahastizainak *Artesanía y creatividad* (Artisautza eta sormena) hitzaldia emango du. Beranduago, **Elssie Ansareok**, Bilbon bizi den jatorri mexikarreko artistak, ikuspegia kritikoa eskainikoa du egungo arte-jardunean edertasunaren estetika bat aukeratzeari buruz *Hermosa y Maldita* (Ederra eta madarikatua) hitzaldian. Ondoren, **Ixiar García** “aktibista futuristak” edertasuna eta sormen paregabeea sustatzearen inguruan hausnartuko du *Belleza singular y plural. We are Pink Gorillas* (Edertasun paregabeea eta plurala: *We are Pink Gorillas*) hitzaldian. Artearen historialari **Jorge Luis Marzok** emango dio amaiera topaketari *Sentimientos patrios/sentimientos estéticos: unos apuntes sobre la ventriloquía española* (Aberriaren sentimenduak, sentimendu estetikoak: Espainiako bentrilokiari buruzko zenbait ohar) hitzaldiarekin. Arratsalde horretan bertan, **Maider López** artistaren eskutik Zero Espazioa, Guggenheim Bilbao Museoan bisitariak orientatzeko gela berria, bisitatzeko aukera izango da artista bera izan baita lagunzaile gelaren sorreran. Azkenik, jardunaldiei amaiera emango zaie ondorioak azalduko dituen solasaldi batean.

EGITARAUA

EKAINAK 23

Goizez

- 10:00: Akreditazioak
- 10:30: Ikastaroaren aurkezpena eta edukien deskribapena
Marta Arzak, Guggenheim Bilbao Museoaren Hezkuntza eta Interpretazioko Zuzendariordea, eta **Josu Rekalde**, artista eta UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko Dekanoa
- 11:00: *Estética y educación: una cartografía social y temporal de nuestros museos* (Estetika eta hezkuntza: gure museoen kartografia sozial eta denborazkoa)
Roser Juanola, Investigadora del ICRPC-ko ikertzailea (Institut Català de Recerca en Patrimoni Cultural) eta CECA España (Comité de Educación y Acción Cultural) konfederazioko ordezkaria
- 12:30: *Art Education in Transformation* (Artearen inguruko hezkuntza eraldatzen)
Bernadett Settele, Zuricheko Unibertsitateko Arte Goi Eskolan garatzen diren ikerketa proiektuen koordinatzailea
- 13:30: Parte-hartzaileekin solasalda. Moderatzailea: **Marta Arzak**

Arratsaldez

- 15:30: *Belleza, Placer y Dolor: Análisis desde tres fragmentos filmicos* (Edertasuna, gozamena eta mina: hiru film zatitan oinarritutako analisia)
Erakusketa eta eztabaida hauen esku: **Gabriel Villota**, artista eta UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea, **Iñaki Martínez de Albéniz**, Soziologian doktorea eta UPV/EHUko Nortasun kolektiboari buruzko ikasketen zentroko ikertzailea, eta **Josu Rekalde**, artista eta UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko dekanoa
- 18:00: Bisitaldia ondorengo erakusketetara: *Anish Kapoor, Robert Rauschenberg: Gluts eta Henri Rousseau*
- 19:30: Amaiera

EKAINAK 24

Goizez

- 10:00: *Artesanía y creatividad* (Artisautza eta sormena). **Telmo Rodríguez**, mahastizaina
- 10:30: *Hermosa y Maldita* (Ederra eta madarikatua). **Elssie Ansareo**, artista
- 11:00: *Belleza singular y plural. We Are Pink Gorillas* (Edertasun paregabea eta plurala: *We are Pink Gorillas*). **Ixiar García**, aktibista futurista
- 12:00: Solasaldia **Elssie Ansareorekin**, **Ixiar Garcíarekin** eta **Telmo Rodríguezekin**.
Moderatzailea: **Marta Arzak**
- 12:30: *Sentimientos patrios/sentimientos estéticos: unos apuntes sobre la ventriloquía española*
(Aberriaren sentimenduak, sentimendu estetikoak: Espaniako bentrilokiari buruzko
zenbait ohar)
Jorge Luis Marzo, Artearen historialaria, erakusketen komisarioa, idalzea eta Pompeu
Fabra Unibertsitateko Elisava eskolako irakaslea
- 13:30: Solasaldia **Jorge Luis Marzorekin**. Moderatzailea: **Josu Rekalde**

Arratsaldez

- 15:30: **Maider López** artistaren eskutik, bisitaldia Zero Espaziora, Guggenheim Bilbao Museoa
bisitariak orientatzeko gela berrira
- 16:30: Ondorioak

ARGIBIDE GEHIAGO

Data: ekainak 23 eta 24

Tokia: Guggenheim Bilbao Museoko Entzungela

Hizkuntza: Gaztelania

Matrikulatzeko epea: 2010eko ekainaren 22 arte

Prezioa: 110€ publiko orokorrarentzat eta 55€ ikasleentzat, langabetuentzat eta Museoaren Lagunentzat

Argibideak eta matrikula:

- www.ehu.es
- tel. 946 01 71 43/11